

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak hitzarmenak izenpetu ditu taxi-zerbitzua biztanle-dentsitate txikiko udalerrien eskarira egokitzeko

*Sustapen Departamentuaren kargu geratuko da zerbitzuko diru-laguntzaren % 65*

Lunes, 18 de febrero de 2013

Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuaren bitartez, Ollo eta Itzako Udalak eta Teletaxi San Fermin elkarteak hitzarmen bat izenpetu dute taxi-zerbitzua ondoren zerrendatuko diren udalerrien eskaritari egokituta eskaintzeko 2013an: Orkoién, Arteta, Senosiain, Ollo, Ultzurrun, Saldise, Iltzarbe, Atondo, Anotz, Lete, Beasoain, Egillor eta Itza. Zerbitzu hori erabilera orokorreko ohiko garraioaren ordezkari jarriko da; garraio hori 2012ko urriko Ebazpen baten bidez eten zen.



Nafarroako Gobernuak, udaletako eta Teletaxi San Fermin elkarteak ordezkariak taxi-zerbitzua landako udalerrien eskaritari egokituta eskaintzeko izenpetutako Hitzarmenaren ondoren.

Neurri hori hartu da dentsitate txikiko udalerrietan garraio publikoko zerbitzuaren eraginkortasuna handitzeko behararen aurrean; leku horietan "eskarira" egindako zerbitzua (garraioaren beharra dagoen edo ez, haren arabera) zerbitzu zurrun bat baino eraginkorragoa da, enpresa bati ibilgailuak erreserbatzera behartuko diona eskari gutxiko aurreikusitako bidaiak burutze aldera.

Gainera, Nafarroako Gobernuak, Sustapen Departamentuaren bidez, antzeko hitzarmen bat izenpetu du Teletaxi San Fermin elkartearekin eta Zizur, Zabaltza eta Beraskoingo udalerriekin taxi-zerbitzua ondorengo udalerrien arteko eskaritari egokituta eman dadin: Zizur Nagusia, Beraskoain, Arraitza, Zabaltza, Ubani, Larraia, Paternain, Gazolaz eta Sagues.

Administrazio publikoek enpresari egingo dioten konpentsazioan zerbitzu horren ondorioz sortutako defizitagatik, Sustapen Departamentua kostuaren % 65az arduratuko da eta hitzarmena izenpetzen duten udalerriek gainerako % 35.

Zerbitzu horren finantzaketa publikoa uztailearen 30eko 16/1987 Legearen, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzkoaren, 19. artikulua

babesten du. Hark arau orokor gisa ezarri ondoren garraio publikoaren tarifek kostu erreal guztiak estali beharko dituztela, erantsi du "era berezian erabiltzaileak tarifa txikiagoak finkatu ahalko dituela, horretarako arrazoi ekonomikoak edo sozialak dauden zerbitzuetan, eta Administrazio interesdunek enpresei konpentsazio ekonomikoko erregimen berezia ezarriko dela".

Lehen hitzarmena honako hauek izenpetu dute: Sustapen kontseilari Luis Zarraluqui-k; Olloko udalerriko alkate-udalburu Francisco Javier Pérez Cueva-k; Itzako udalerriko lehen alkateorde Reyes Gurrea Bairrotegui-k eta Teletaxi San Fermin elkarteko ordezkari Jesús Cerdán Litago-k. Bigarren hitzarmena ondorengoek izenpetu dute: Beraskoingo udalerriko alkateorde Luis Lizarraga Aquerreta-k; Zabaltzako udalerriko alkate-udalburu Marina Mejías Jiménez-ek eta Zizurko udalerriko alkate-udalburu José Joaquín San Martín Murillo-k.

### **Olló eta Itzako udalerrietako erabiltzaileentzako baldintzak eta tarifak**

Hitzarmenaren testuak zerbitzua emateko baldintzak erabakitzen ditu, erabiltzaileei kobratuko zaizkien tarifak eta haren finantzaketan esku-hartzen duten Administrazio Publiko bakoitzari dagokion ekarpena.

Zerbitzuaren berezitasuna ikusita, egokitzen jo da Teletaxi San Fermin elkartearen azpiegitura erabiltzea. Elkarte horrek komunikazio-sistema egokiak ditu zerbitzua koordinatzeko, eskariaren arabera emango den zerbitzua bi **ibilbiderekin**:

Orkoien-Arteta-Orkoien zerbitzua

a) Orkoien-Arteta zerbitzua: Orkoien-Itza-Ororbia- Egillor-Beasoain-Lete-Anotz-Atondo-Iltzarbe-Saldise-Ultzurrun-Ollo-Senosiain-Arteta.

b) Arteta-Orkoien zerbitzua: Arteta-Senosiain-Ollo-Ultzurrun-Saldise-Iltzarbe-Atondo-Anotz-Lete-Beasoain-Egillor- Ororbia-Itza-Orkoien.

Orkoien-Itza-Orkoien zerbitzua

a) Orkoien-Itza zerbitzua: Orkoien-Itza.

b) Itza-Orkoien zerbitzua: Itza-Orkoien.

Zerbitzuen **ordutegia eta egutegia** honako hau izango da:

Astelehen eta astearte lanegunak:

-Orkoien-Arteta, 08:00etan eta 15:35ean.

-Arteta-Orkoien 08:30etan eta 16:00etan.

Ostegun lanegunak:

-Orkoien-Arteta: 09:15 eta 13:35

-Arteta-Orkoien: 09:45 eta 14:00

-Orkoien-Itza 07:45

-Itza-Orkoien 07:50

Erabiltzaileek txartela beren udalerriko bulegoetan erosiko dute, ondorengo **tarifak** ordainduta: Arteta, 2,03 €; Senosiain, 1,95 €; Olló, 1,93 €; Ultzurrun, 1,90 €; Saldise, 1,78 €; Iltzarbe, 1,70 €; Atondo, 1,56 €; Anotz, 1,50 €; Lete, 1,50 €; Beasoain, 1,50 €; Egillor, 1,50 €; eta Itza, 1,50 €.

Erabiltzaileek egindako lekuaren erreserba Teletaxi San Fermin elkarteko telefonogunekora dei eginez egingo da ordu erdi lehenago gutxi gorabehera, astelehenetik ostiralera, osatu beharreko ibilbidea adieraziz.

**Geltokiak** honako leku hauetan kokatuko dira:

- Arteta: San Salvador kalea 8, elkartearen alboan.
- Senosiain: San Martín kalea, garbitokiaren alboan.
- Olo: Santo Tomás kalea, udaletxearen alboan.
- Ultzurrun: San Juan kalea, parkearen alboan.
- Saldise: San Gregorio kalea, garbitokiaren alboan.
- Iltzarbe: San Esteban plaza.
- Atondo: (1) San Martín kalea eta Monte Bizkai arteko kantoian (Eliza).  
(2) Atondoko Bentak.
- Anotz: San Blas kalea eta NA-7020 artean, edukiontzien alboan.
- Lete: San Millán kalea, pilotalekuan.
- Beasoain: San Martín kalea, garbitokiaren alboan.
- Egillor: San Miguel kalea, markesinan.
- Itza: (1) San Martín kalea, 6.  
(2) Soto Parajea, 1.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak etenik gabe beteko dira, justifikatutako arrazoien bat salbu. 2013 guztirako finantzatu beharreko defizit guztia 7.534,28 eurokoa dela kalkulatu da, eta kopuru hori proportzionalki murriztuko da zerbitzua ezartzen den dataren arabera.

### **Zizur, Zabaltza eta Beraskoingo udalerrietako erabiltzaileen baldintzak eta tarifak**

Taxi-zerbitzua eskariaren arabera emango da honako **ibilbide** honekin:

a) Zizur Nagusia – Beraskoain zerbitzua: Zizur Nagusia – Gazolaz - Sagües - Paternain - Larraia - Ubani - Zabaltza – Arraitza - Beraskoain.

b) Beraskoain-Zizur Nagusia zerbitzua: Beraskoain– Arraitza–Zabaltza-Ubani–Larraia–Paternain–Sagües–Gazolaz-Zizur Nagusia.

Zerbitzuen ordutegia eta egutegia honako hau izango da:

Astelehenetik larunbat lanegunera:

Zizur Nagusia 09:15, 13:00, 20:00

Beraskoain 09:45, 13:30, 20:30

Erabiltzaileek txartela beren udalerriko bulegoetan erosiko dute, ondorengo tarifen arabera:

	astelehenetik ostiralera	larunbatak
Beraskoain	2,18	2,74
Arraitza	1,73	2,16
Zabaltza	1,70	2,13

Ubani	1,50	1,78
Larraia	1,50	1,50
Paternain	1,50	1,50
Sagües	1,50	1,50
Gazolaz	1,50	1,50

Erabiltzaileek egindako lekuaren erreserba Teletaxi San Fermin elkarteko telefonogunera dei eginez egingo da ordu erdi lehenago gutxi gorabehera, astelehenetik ostiralera, osatu beharreko ibilbidea adieraziz.

**Geltokiak** honako leku hauetan kokatuko dira:

- Gazolaz: Santa María, 1.
- Sagües: Sagüesko errepidea.
- Paternain: Beraskoingo errepidea 27- Larraia: Beraskoingo errepidea.
- Zabaltza: Larga kalea, elizaren alboan.
- Ubani: Miravalles kalea, 2. zenbakitik hurbil.
- Arraitza: Kontzejuko plaza zk.g.
- Beraskoain: San Miguel plaza, markesinaren alboan.

Hitzarmen honen xede diren taxi-zerbitzuak behar besteko jarraikortasunarekin emango dira.

Sustapen Departamentuak era berean defizitaren % 65 finantzatuko du eta hitzarmen hau izenpetzen duten udalek gainerako % 35, nahiz eta Udalei dagokien banaketa beren biztanle-kopuruaren proportzioan egingo den. 2013rako 16.735,68 euroko defizita kalkulatu da.